

Gasa

JOSEMARI VELEZ DE
MENDIZABAL

DIRUDIENEZ,

egundoko borroka ekonomiko eta bestelakoa ematen ari da EEBB, Japoi eta Europako zenbait estaturen artean Siberia eta Errusiako beste puntu batzuetan diren gas-erreserbez jabetzeko. Baina ez naiz gaurkoan horretaz ari. Hurbilagoetik egokitu zaigun fenomeno 'naturala' aipatzen ari naiz, besterik gabe, irakurle askok (asko al dira zutabe honen irakurleak?) Xabier Mendiaga lagunaren arazo berdina izan dezaketelako.

Gasa da buruhauste egunotan adiskideak, hain zuzen ere epe laburrean bere etxeko ekonomian hainbeste eragina izango omen duen gas naturala. Badakit ez naizela berrikuntzat ari eta gure herrietako etxeetara erregai hori aspalditik iristen ari dela eta Xabier baino lehenago hainbat eta hainbatek jasan dutela instalatzaile baimenduen eraso. Neri Xabierrek kontatu dit eta horregatik natzaizue berari gertatutakoa azaltzen ari, ez kasu bakarra delako beste inork ageri ez didalako baizik.

Dozenaka ei dira milaka milioitako gasaren merkatu berrira bapatean konkurrutu ziren enpresak. Espreseki horretarako eratuak, merkatuko legearen postulatutako basatiak azken ondorioaraino eraman dituzte eta lehia izugarria bide da bezeroa konkistatu arte. Instalakuntzarako itxurazko eskaintza merke bati prezio igoera ulertezin batek jarraitzen dio, behin eskaintza onartuz gero etxeko jabeak instalakuntzan aldatetarik txikiena eskatzen badu.

Instalatzaileren helburua, beraz, ez omen da etxeko jabearena. Azken koitadu horrek bere segurtasuna eta erosotasuna bilatzen dituen bitartean haiek irabazi azkarrek dituzte xedea. Normalean ez dira asmo konbergenteak.

Eusko trinitatea

RAMON LABAIEN



EUSKERA aurrera doa. Orain arte, Euskaltzaleak, euskera maite genduenok ginen. Gaur, dirudienez, 'euskaltzale' mota berri bat sortu zaigu... PSOEkoak,

Euskadin egindako biltzar hortan azaldua... Euskaltzale zahar, euskera maite duena. Euskaltzale berri, euskerari bildurra diopa... Gure kulturaren oinarri, herri honen seme zintzuenzat. Abertzaleek duten tresna politiko nagusia, beste hoiatzat.

Maitasuna eta bildurra. Horra, euskeraren inguruan dabilen bikote berria... Bi erreka eta biak, euskerari bultzakada bat ematen, edo emateko prest, diotenez. Eta hala bedi. Euskaltzale zaharra betiko helburuekin. Eta euskaltzale 'berriak'? Laister ikusiko, xori hoiere jokua... Beraien ikuspegitik, euskeraren aurka hartutako neurriak euskera sendotu egin digute. Baita ere eusko gizarteak. Eta gizartearen abertzaletasuna...

Euskera lagunduz, nolabait euskaltzaleak erosiz, kamutzuko ote da eusko abertzaletasunaren ezpata? Horra hor, PSOEko plazan dabilen apustua. Etorkizunik gabekoa, kredibilitaterik gabekoa, egiten dutenak, bere buruak ez badituzte euskalduntzen... Hor ikusiko, intentzio txar hutsetan gelditzen den gauza, edota bihotzetik sortutako zerbait gehiago ere susmatu leiken. Hau ez dalako diru kontua. Gu, ez guralako salgai.

Hala gauzak, kezka gutxi ematen, horrelako jukutriak... Sartu ditezela euskeraren munda, gaur PSOEen kokatu diren herri honen semeak, eta izanen dira bataiatuak eta sakonki bataiatuak. Eta zergatik ez, baita ere ongi etorriak, eusko gizarte hontara.

Maturana jauna euskaldun batek —horrelako fenomenoak sortzerik baldin badago— zerikusi gutxi izanen du Maturana jauna bellarimotzarekin. Hor daukan azpiegitura xamar hori ezik...

EL DIARIO VASCO

Julio, askatua

(...) Iglesias Zamoraren askatasunak debate eta inkognita itzal baterako bidea ere irekitzen du, bere askatasuna inguratu duten baldintza errealean gainean, erreskate handia ordaindu delako susmo oinarritua baitago, horren ezeztapenak egin diren arren.

Erreskatearen diruarekin, ETak orain ahalbide gehiago ditu bere egintza lazgarriak. Arduratzeko moduko ondorioa da, baina ez da derrotismoan erori behar. Biolentziaren kontrako borroka ondo planteatuta dago eta ez bairik gabe fruituak ematen ditu. Bahiketa dela eta, herritarrek inoiz ez bezala mobilizatu dira, beraz, horrek esan nahi du bake nahia gero eta indar eta naturaltasun handiagoarekin azaleratzen dela. Oker handia litzateke, beraz, ahalegin hori guztia orain lausotzen uztea bahitua dagoeneko etxean delako. Aitzitik, orain aprobetxatu behar da bolarra, ekimen berriei bidea emateko xedez. Lazo urdinaren kan-



painak inflexio une bat markatu behar du biolentzaren eta beraien trama zibilaren kontrako borroka baketsuan.

EDITORIALA


EL CORREO ESPAÑOL

Postnazionalismoari
buruz zerbait gehiago

Euskal sozialismoaren berrosaketak, PSE-PSOEek eta Euzkadiko Ezkerrak bat egin ostean,



alderdi politiko berria sortu du, izate nazionala bereganatzen duena, euskal nazionalitatearen eraikuntza proposatzen duena, transferitzeko dauden gaien inguruan interpretazio komuna egiteko helburuarekin Legebiltzarrean akordioa bultzatzen duena eta autonomien Estatua Senaturara egokitu dadin Konstituzioa aldatzeko proposatzen duena. Horrek guztiak aldi historiko berri batean, hainbat arrazoiengatik postnazionalista deitzea guztiz okerra ez litzatekeena, ezartzen gaitu. Duela zen-



OLMO / EL CORREO ESPAÑOL

bait urte, batek igogailuan topatzen zuen edozein euskaldunek nazionalista zirudien, kontrakoa frogatzen ez zen bitartean. Gaur egun, ez du inolako pertinentziarik nazionalista bada edo ez bada, zeren autodeterminazio edo independentziarako egiten diren errotuzko deietatik kanpo, euskalduntasun plus batez inguratzen goginak, nazionalistak ezin dira ezertan ere bat etorri. Horrek esan nahi du nazionalismoak eraginkor izateari utzi diola.

MARIO ONAINDIA

ZUZENDARIARI

'Balinda' forma
berriaren inguruko
eztabaidan

Euskal Telebistak hasi duen programaren izenari buruz nire iritzia azaldu nahi nuke.

Jende askok ikusi ez badu nahi ere, uste dut ez dela kasualitate bat horrelako forma gramatikalak agertzea gure hizkuntzan eta euskaltzaleen hausnarketa merezi duela iruditzen zait, aditz forma hauek sistematikoki gaitzetsi ordez.

Azken finean galdera hau litzateke; zergatik sortzen dira 'balinda' bezalako aditz formak? Sarritan entzuten den komentarioa, gaur egungo haurrek euskara gaizki hitz egiten dutelako, beraz, zuzendu beharreko gauza bat da. Ez dut uste hau erabat egia denik. Agian, arrazoi parte bat ez zaio falta, baina beste ikuspegi batetik ikusten ahal da, dudarik gabe, Nire ustez kontuan hartu beharko litzatekeen puntu bat da, distantzia handiegia dagoela jendeak erabiltzen duen euskararen eta komunikabideetan nahiz irakaskuntzan erabiltzen den euskararen artean.

Nafarroako EGA titulurako egiten diren etsamintetan gertatzen dena guzti honen lekuko dugu. Jakingo denez, frogia desberdinen artean haxe dugu bat: esaldi baten ondoren, lau aditz formen artean zuzena aukeratu behar da. Ikasle askok, urte guztian zehar aditz for-

ma desberdinak jotake lantzen aritu ondoren, (edo ikastola batean bizitza osoan ikasi ondoren), sarritan ez dute erantzuna asmatzen, huts egiten dute, aditz egokia zein den asmatzeko denbora franko izanda ere. Nola espero daiteke jende normalak eguneroko elkarrizketetan, aditz hauek normaltasunez eta jarioz erabiltzea?

Eta zer esan euskaldun berriei buruz, hauek bai gorriak ikusten dituztela subjuntibo, ahalera, trinko, hipotetiko eta abarrekin.

Zenbat eta zenbat aditz forma geratzen dira teoria hutsean, azterketak gainditzeko ikasi behar den zerbaitetan, komunikabide eta irakaskuntzan soilik agertzen direnak...

Honezkero, baten bat sutan egongo da esaten ari naizen guztiarekin eta ez nuke nahi gaizki interpretatua izatea. Alegia, ez naiz arestian aipatu ditudan aditz formen kontra ari, bai ordea, beste aditz mota batzuk ez erabiltzearen edo irakastearen kontra. Adibidez, Nafarroa, Bizkaia eta Iparraldean, nola erabiltzen dira aditz potentzialak? ba —ahal— formarekin. Forma hauek beste aditzak bezain zuzenak dira eta ikaragarri errazten du potentzialaren erabilera. Euskaldun berriek adibidez, franko eskertuko lukete aditz perifrastiko hauek irakastea, eta ez hain berriek ere bai, noski, azterketa askok azaltzen digutenez, euskaldun zaharrek ere arazo larriak baitituzte, eta askotan kurioski euskaldun be-

riek baino gehiago, euskal aditz potentzialak menperatzeko.


Zoritzarrez askotan, zenbat eta aditz forma konplikatuago esan, orduan eta ustezko prestigio gehiago hartzen du hizlariak; «Ez zeniezazkiguketen horrelakorik esan», eta hauek entzuten ditugu komunikabideetan. Joera honek ez dakit ze mesede egiten ahal dion euskarari, ondoren herria sarritan forma guzti hauek saihesten saiatzen denean, *leike dizuet, balinda joan* edota hizkuntz jiroak, 'etor dakizkidake' esaten ez jakitean, *nahi badute etorriko dira* eta horietako bitxikeriak, maiz entzun ohi dira eguneroko elkarrizketetan.

Andoni Egañak aurkezten duen programaren izena ikusi nuenean, benetan poztu nintzen, nolabait errealtate guzti honen islada baitzen bere lehiaketaren izena eta lehenengo saioan bertan esan zen bezalaxe, forma berri hau euskara bizi den seinale delako. Hau da, euskarak forma berri hauek sortzeko gaitasuna galtzen duenean, akabo! gure hizkuntzaren erabilera ezaren seinale garbia izango baita, nahiz eta teoriarik 'hizkuntza zuzena' izan, orain dela zenbait urtetako garbizaleek proposatzen ziguten antzeko zerbaiten modukoa.

MIKEL MENDIZABAL

Lesaka (Nafarroa)

GAIA JARRITA

Munduko
Maratoi Kopa

Kilometroak berrogeita bi partaidetza nabarmena, zirkuituari hiru bat bira ematea da aurrena, eta denbora bajo xamarra osatu nahia hurrena. Bi lasterketa desberdin daude bide berean barrena, bata partaide guztiena ta bestea txinatarrena.

MADDALEN LUJANBIO

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: IÑAKI URÍA

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI

Zuzendariordea: LUZIAN ETXEHARRETA

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publizitatea: PUBLICITAS

Capitan Haya 1 2.a 28020 Madrid ☎: 91 555 11 01 / Faxa: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia ☎: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. Leher. / 01005 Gasteiz ☎: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zaballurru Enparantza, 2-1. Leher. / 48003 Bilbo ☎: 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1/ 503 Posta kutxatila, / 64100 Baiona ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11